

URDIN TXIKI ETA HORI TXIKI

Testua eta ilustrazioak: LEO LIONNI

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 22 cm. 48 or. 13 €.

Urdin Txiki eta Hori Txiki (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-761-2. Kalandraka-Pamiela.

Pequeño Azul y Pequeño Amarillo (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-92608-34-8. Libros para Soñar.

Pequeno Azul e Pequeno Amarelo (galegoz)

ISBN 978-84-8464-795-9. Demademora.

El petit Blau i el petit Groc (katalana)

ISBN 978-84-8464-811-6. Kalandraka.

Pequeno Azul e Pequeno Amarelo (portugesez)

ISBN 978-972-8781-53-8. Livros para Sonhar.

Egun batean Ama Urdin erosketak egitera atera zen. "Geratu etxean", esan zion Urdin Txikiri. Baina Urdin Txiki Hori Txikiren bila joan zen. Kaleaz bestaldeko etxean ez zegoen inor, ordea. Alde batera begiratu zuen, eta bestera eta alde guztietara, harik eta, bat-batean, izkina pasata, Hori Txiki aurkitu zuen arte! Elkar besarkatu zuten pozaren pozez, behin eta berriro besarkatu ere...

Jutta Bauer aleman ilustratzaileari "Urdin Txiki eta Hori Txiki" liburuaz galdetzen diotenean, "maisuan baten lan" tzat jotzen ohi du. Leo Lionnik paper zati xume batzuk eta zenbait hitz eraginkor erabiltzen ditu istorio amultsu bat kontatzeko. KALANDRAKAK maisu-lan hau berreskuratu zuen: nahiz eta 1959koa izan, garai hartan aitzindaria izan zen eta gaur egun ere erabateko indarra dauka. Istorioan nabarmentzekoa da proposamen plastikoaren samurtasun eta orijinaltasuna, esaldi bakun eta deskriptiboez osatutako testuarekin bikain ezkontzen dena.

Bi kolore txiki besarkada handi batean elkartzen dira, ohartu gabe kolore berri bat osatu dutela; hori dela eta, ordea, inork ez ditu ezagutzen. Negarraren bidez, jatorrizko kolorera itzultzen dira, eta guraso eta adiskide guztiekin batera ospatzen dute. Hala, geroztik gama kromatiko berriak sortzera jolastuko dira.

Kontakizun honen itxurazko sinpletasunaren azpian, adiskidetasuna, xalotasuna, identitate indibiduala eta kolektiboa goraiatzen dituen istorioa dago. Aldi berean, hasierako irakurleek kolore, tamaina eta norabideei buruzko arte-ikasgai bat jasotzen dute. Gure garaietara ekarrita, Leo Lionniren ikaskizuna da pertsonen arteko desberdintasunek garrantzirik ez dutela, eta benetako ardurak elkartasuna eta elkar ulertu eta bizitzea direla.

www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.  Pamiela .com
etxea
soltxate@pamiela.com

Urdin Txiki eta Hori Txiki



- **Galak:** desberdintasunak, adiskidetasuna, artea.
- **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** garai guztietako haur literaturako klasiko bat, teknika estetiko berezi batez ilustratua; "Frederick", "Igeritz", "Munduko etxerik handiena", "Matiasen ametsa"; "¿Qué es?", "¿Quién es?", "¿Cuándo?", "¿Dónde?" liburuen egile berarena.


Leo Lionni

(Amsterdam, Holanda, 1910-Toscana, Italia, 1999)

Leo Lionni arte-giroan hazi zen –ama opera-kantaria izan zen; osaba Piet, berriz, margolaritza-zale handia eta oso gaztetatik jakin zuen huraxe izango zela bere zoria. Jaso zuen formakuntza, aldiz, ez zen artistikoa izan, Ekonomian dokuratu baitzen. 1931n Milanen bizitzen hasi zen eta lehen harremanak izan zituen diseinu grafikoarekin. 1939an Ameriketara joan zenean, Filadelfiako publizitate-agentzia batean, Olivetti korporazioan eta Fortune aldizkarian lan egin zuen. Artista gisako ospea ere lortu zuen eta bere margolanak galeriarik onenetan erakusten hasi ziren, Estatu Batuetatik Japoniaraino. Lionnik berak noizbait esan zuenez, "Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimena adierazten ditu beti". Haurrentzat idatzi zuen lehen liburua ia ustekabeen sortu zen 1959an: tren-bidaia batean, zetazko paper zatiez egindako istorio baten bidez bilobak entretentzea otu zitzaion. Halaxe sortu zen "Urdin Txiki eta Hori Txiki", eta haren atzetik mundu osoko adituek txalotutako 40tik gorako obra gehiago. Eskultore, diseinatzaile, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituengatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen 1984an.



Baina Aita eta Ama Urdinek esan zuten: «Zu ez zara gure Urdin Txiki, berdea zara eta».



Eta Aita eta Ama Horik esan zuten: «Zu ez zara gure Hori Txiki, berdea zara eta».